

Bizitzeko eta gozatzeko lekua

Leioa handitu egin da hainbat etxebizitza-eremu garatu direlako, besteak beste, Mendibile, Udondoko Bulebarra, Pinosola, Txorierrri, Aldekoena, eta baita Lamiako-Txopoetan egiten ari diren hiriberritze-lanen ondorioz ere. Jarduera horiek abian jartzeak leioaztarren esku babes ofizialeko 800 etxebizitza jartzea ahalbidetu du, besteak beste, eta, horrela, arrazoizko prezioak dituzten etxebizitzaren aldeko apustuari eusten zaio; Udala aitzindaria izan zen era horretako etxebizitzak eraikitzen Euskadin, hain zuzen ere, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran Luis Bilbao Libano kalean babes ofizialeko 100 etxebizitza eraiki zituenean. Era horretan, hiri lurretan eraiki diren etxebizitzaren %35 babes ofizialekoak izan dira, aplikaziozko lege-estandarra %20 ingurukoa izan arren. Legez eska daitekeenaren hamabost portzentaje-puntu gainera.

Mendibileko garapen-eremua irtenbide gisa aurreikusitako zen, hirurogeiko hamarkadan Iturribide, Donibane-San Juan eta Ikea auzoak sortu zireneko hirigintza intentsibo eta akigarririk eratorritako arazoak konpontzeko. Horregatik, Mendibilek, ekialdetik hiriguneari amaiera emateaz gain, bi ekarpen handi egiten dizkie auzo horiei: alde batetik, lurrazaleko aparkalekua Martibarrenan eta Bidekurtzioko aparkalekua, eta, bestetik, Mendibile parkeko eta Bidekurtzio plazako eremu publikoak. Aipatutako ekarpenak osatzen dituzte beste bi udal ekarpenek: Mendibileko pasabidea, Artatzako errepidearen bi aldeak lotzeko, eta Mendibile baserriaren berreskuratzea, Bizkaiko Txakolin Etxea izateko.

Udondoko Bulebarrak hirigunea Metrorantz luzatu du, eta, horrenbestez, hirigunea eta Lamiako Txopoeta lotu dira, kalitate handiko parametroekin. Etxebizitza-eremu berriari esker, bide-lotura berriak sortu dira, oinezkoentzako gunek zabalak, eta, gainera, eremu zabal bat gorde da udal ekipamenduak eraikitzeko, gaur egun Udondoko behin-behineko aparkalekua dagoen lurretan. Baina, zalantzarik gabe, zabalgunek horrek egin duen ekarpenik garrantzitsuena izan da Leioako Metroa-Unibertsitatea tranbiaren bidea hiritartzeko lanak aurreratzea, horretarako pentsatu baitzen, funtsean, Udondoko Bulebarra.

Pinosolok Leioaren hazkuntza bideratu nahi izan du ekialdean, eta, era berean, Artatzako errepidearen alde batean hirigunea Basañez auzoarekin fisikoki lotzea eta, bestetik, hirigintzari errematea ematea ahalbidetzen zuen Osakidetza-antolatzaileak eta Mercedarias ikastetxetik gertuen dagoen guneko alboetako batean, Aldapabarrena kale eraberrituari eskerrak. Eta, gainera, udalerrian oinezkoentzako gunek gehiago egin dira (Lekueder pasealekua), Pinosoloko kiroldegia egiteko lurzorua gorde da, zenbait ekipamendu egin dira, hala nol,a Skate Park berria, udal zerbitzuak eskaintzeko lokalak gaitu dira (Gaztelekua, besteak beste), eta, batez ere, Pinosolo eta Ugarteondoko parkeak berreskuratzea. Horrez guztiaz gain, Leioa eta Getxo bizikleta bidez lotzeko bidegorri-proiektu garrantzitsu baten lehenengo metroak egin ahal izan dira eremu horretan.

Arau Subsidiarioek aurreikusitako hiri-hazkuntzaren aurreikuspenak bete ez ziren udalerriko eremu bakarra zen Txorierrri; arau subsidiarioak HAPOn aurreko udal planeamenduko tresna ziren eta demokraziaren lehenengo 20 urteetan erabili ziren. Gabezia hori aipatutako HAPOn zuzendu zen, auzoa finkatzea ahalbidetu baitu iparraldean, eta, gainera, hiru hobekuntza ekarri ditu: auzoaren erdigunera joatea

errazten duen plaza publiko handi bat egin da, berdegune batekin, bide-zirkulazioa eta aparkalekuak arrazionalizatu dira eta espazio berriak sortu dira Txorierriko udal zerbitzuak hobetzeko (hirugarren adinekoentzako zentro berria eta erabilera anitzeko aretoa).

Aldekoena, Sarriena eta Artatzagana artean, ekarpen handia izan da bi gunek elkartu eta zenbait gabeziari irtenbidea eman ahal izateko. Era horretan, lotura horri esker, bideak berriitu dira, zirkulazioa hobetu da kalitate handiko biribilgune lorategidunen bidez, aparkaleku berriak sortu dira eta Bordeoenako parkea gaitu da jolasteko gunearekin.

Lamiako-Txopoetari dagokionean, Leioako HAPOk hainbat jarduera aurreikusi zituen hiria biziberritzeko; jarduera horiek egingarriak ziren Metroak auzoan egiten duen ibilbidearen ondorioz egindako obrak amaituta zeudelako, izan ere, nahiz eta ez zen posible izan lurpean egitea, espazio zabaltasun handiagoa izatea ahalbidetu zen Langileria kalearen zabalkuntzarekin, eta hori ezinbestekoa izan zen akabera ona ziurtatzeko. Horri esker, Lamiako eta Txopoeta arteko hiri-lotura egin ahal izan da, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak 170 etxebizitza egin ditu eta espazio publiko berriak sortu dira (plaza, jolasgunea, hirugarren adinekoentzako zentro berria eta erabilera anitzeko aretoa); eta, gainera, auzoko BBEEB hasi da, hiria eraberritzeko egitasmoa, hain zuzen ere, eta egitasmo horri esker, etxebizitza zaharrak eraitsi daitezke, jendea beste nonbait bizitzen hasteko aukera ematen du, eremu publiko berriak sor daitezke, besteak beste, plazak, gunek lorategidunak eta ekipamendu nahiz udal zerbitzuetarako lokalak.